

Elkarrizketa

2050ean etxebizitzaren prezioek gora egiten jarraituko dute ala oraingo prezioetan mantenduko dira?

Zoritxarrez uste dut igotzen jarraituko dutela, hala esaten dute adituek.

Uste al duzu udalak nahiko plan badituela gazteak lehenbailehen emantzipatzeko? Gazteek Zumaia beste herriren batera joan beharko al dute?

Ez da erraza, zerbait egiten dute, ez dakit nahikoa den ala zer gehiago egin dezaket, pena bat da, baina uste dut gazte askok irten egin beharko dutela. Prezio hauekin ezingo dutelako aurre egin eta nahiz eta ez nahi izan, irten egin beharko dute askok.

Jendeak Zumaia herri turistikotzat izango du edo bizileku moduan?

Nik uste dut bizileku moduan jarraituko duela. Beti egongo dira pisu turistikoak baina nik uste dut orain bezala jarraituko duela eta hala espero dut.

2050. urtean zumaia ugarik etxetik egingo al dute lan internet bidez? Industrian ere makinak nagusitzen jarraituko al dute?

Asko ikusi da pandemia garaian nola etxetik egin behar izan duten askok eta uste dut gero eta gehiagok egin beharko dutela etxetik lana. Uste dut etxean gehiago egingo dela lana. Bai. Gero eta gehiago, makinak aurrea hartzen ari dira eta uste dut lana gutxiago behar dela.

2050ean langile gehiago beharko dira edo teknologia berrien ondorioz lan eskulan gutxiago beharko da?

Bai. Esan dudana bezala energia berriak lanean sartuko dira eta jende gutxiago beharko da. Ez dakit gero zer egin beharko dugun baina nik uste dut eskulana asko gutxituko dela, jada makinak jartzen ari dira.

Enpresek sortzen duten kutxadura guztia jasateko gai izango al da Zumaia herria?

Bai, nik uste dut, ZumaiaN enpresa asko herritik kanpora atera dituztela, edo bestela, poligonoetara. Gero eta gutxiago ikusten dira enpresak herrian, horregatik uste dut jasateko gai izango garela.

Zure ustez horrenbeste turista etortzen badira, Zumaia portua handitu beharko lukete?

Nik uste dut ezetz, nahiko tamaina politekoa da eta uste dut herrirako handiago ez dugula behar.

2050erako itsas maila igo egingo da. Zer gertatuko Zumaia bezalako kostaldeko herriekin eta haietan bizi den jendearekin?

Ba hau ez dakit, pixka bat irakurri dut eta 23 eta 26 zentimetro artean igoko dela 2050ean eta ez dakit, baina nik uste dut kalte edo arazo handiena izango dela denboraldietan eta olatu handiak daudenean kalteak handiagoak izango direla, baina ez dakit.

Zure ustez zenbat gradu egingo du gora tenperaturak?

Ez dakit baina uste dut 2 edo 3 gradu igoko dela, baina ez dakit. Ikusi dudanagatik 2 edo 3 gradu inguru.

Zumaiarrok euskaraz mintzatzen jarraituko dugu gure artean ala gazteleraz hitz egingo dugu?

Nik uste dut baietz, hontan oso baikorra naiz, ume guztiak dakite euskaraz orain eta erabiltzen jarraituko da. Hori espero dut eta uste dut.

Emakumezkoen kontrako tratu txarrek gora egingo dute ala gutxiagotu egingo dira?

Espero dut gutxitzea, eta hala nahiko genuke denok, baina ez dakit.

Turista guztientzat aparkalekua egongo al da Zumaian?

Hori bai ezetz, hor bai uste dut zerbait egin beharra dagoela, arazo handia da, orduan, zoramen bat da eta jendeak ez daki non aparkatu. Beraz, bai uste dut zerbait egin beharra dagoela.